



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko martxoaren 8a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak onetsitako irizpena (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, politika ekonomikoari eta enpleguari buruzkoa, Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak egin (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Osasun-ikerketarako Institutua Fundazioko Patronatuko kideen izendapenari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (9. or.).
- Galdera, AHTa Tuteran geratzeko proiektuko izapidetzearen egoerari buruzkoa, José Andrés Burguete Torres jaunak egin (10. or.).
- Galdera, itzaleko bidesaria zor publikotzat hartzearen irizpideari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egin (10. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena (11. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak Jagoletza Partekatuari buruzko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2010eko ekainaren 8ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz ez da zuzenketarik mantendu ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2011ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nagusiak aldarrikatu zuen, eta Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsi- estatuak behartzen ditu errespetatu dezaten hurrek bi gurasoekin modu erregularrean harreman pertsonala eta kontaktu zuzena izateko duten eskubidea, non eta hori ez den haurraren interes gorenen aurkakoa.

Bizikidetzaren haustean, seme-alaba komunen zaintza eta jagoletza da konpondu beharreko arazo kontuzkoenetako bat. Kode Zibileko gaur egungo araubideak, nahiz eta jagoletza partekatua jasotzen duen, praktikan salbuespena da, gurasoen arteko akordiorik ez badago, eta Ministerio Fiskalaren aldeko txostena du baldintza.

Foru lege honekin nahi dena da, egungo gizarte-errealitatearekin bat, horrelako kasuak zuzendu, eta bidea eman joka dadin, gurasoak ados ez eta erabaki behar denean seme-alaba adingabeen gaineko jagoletzari buruz, seme-alaben interes gorena eta gurasoen berdintasuna aintzat hartuta.

Aurrekoa gorabehera, Gobernuari agindua ematen zaio foru lege proiektu bat aurkez dezan, urtebeteko epean, Nafarroako Foru Berria familia zuzenbideari dagokionez aldatzeko, hori baitu horrelako aldaketa batek esparru naturala, gainerrako instituzioekin integratuta, sistema koherente bat osatu behar baitu.

Nafarroak eskumenak ditu zuzenbide zibilaren arloan eta arlo prozesalean, berezkoa duen zuzenbide substantiboaren berezitasunen ondorioz, eta eskumen horiek oinarri hartuta onesten da foru lege hau.

IRIZPENA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak 2011ko otsailaren 24 eta martxoaren 2an eginiko bileretan onetsia.

Seme-alaben jagoletza gurasoen bizikidetzaren haustean den kasuetarako arautzen duen Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Familiaren eta haurren babesa, zeina Konstituzioaren 39. artikuluan aldarrikatzen baita, politika sozialaren eta ekonomikoaren printzipio gidarietako bat da, eta botere publikoak behartzen ditu beharrezko neurriak hartzea babes hori benetan gauza dadin.

Bizikidetzaren hausteak ez ditu gurasoak salbuesten bere seme-alabekiko betebeharratik, eta, horrenbestez, zenbait neurri hartu beharra dago adingabeen eta dituzten eskubideen babeserako, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatuta.

Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak –Nazio Batuen 1989ko azaroaren 20ko Biltzar

I. KAPITULUA **Arau orokorrak**

1. artikulua. Xedea eta helburuak.

1. Foru lege honek xede du arautzea seme-alaba adingabeen zaintza eta jagoletza, beren gurasoen bizikidetzaren haustean den kasuetarako.

2. Foru legearen helburua da behar diren neurriak hartzea seme-alaben jagoletzari buruz hartzen den erabakiak kontuan har dezan seme-alaben interes gorenekoa eta gurasoen berdintasuna, eta gurasoen akordia erraztea familia-bitartekotza- ren bidez.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren ondorioetarako, erraztu egingen da gurasoak ados jartzea foru lege honetan jasotzen den familia-bitartekotza- ren bidez.

2. artikulua. (KENDUTA).

3. artikulua. (KENDUTA).

III. KAPITULU Familia-bitartekotza

4. artikulua. Familia-bitartekotza.

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, gurasoek erabaki dezakete, beren borondatez, eta akordio bat lortze aldera, dituzten desadostasunak familia-bitartekotza- ren bidez konpontzen saiatzea. Era berean, epaileak bitartekotza bidezko konponbide bat proposatzen ahalko du demanda judiziala aurkezten bada.

2. Familia-bitartekotza- ren bidez lortutako akordioak dokumentu batean jaso behar dira, epaileak, hala erabakiz gero, onets ditzan.

3. Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Nafarroako Gobernuak familia-bitartekotza- ko zerbitzu publiko eta inpartzial bat jarriko du aldean eskura".

IV. KAPITULUA Familia-harremanei buruzko hitzarmenik ezean aplikatu beharreko neurriak

5. artikulua. Seme-alaben zaintza eta jagoletza.

1. Bizikidetzaren haustean bada, gurasoetako bakoitzak bere aldetik, nahiz biek batera, ados jarrita, epaileari eskatu ahalko diote seme-alaba adingabeen edo ezgaituen zaintza eta jagoletza biek hartzea beren gain, edo batek bestela.

2. Eskaera gurasoetako batek bakarrik egiten badu, epaileak erabakiko du jagoletza eta zaintza zein eratakoa izan den, partekatua ala banakakoa; horretarako, Ministerio Fiskalari entzun behar- ko dio, eta, aldeaz aurretik, eskatu beharrekoak iruditzen zaizkion irizpenak ikusi eta entzunaldiak gauzatu ere bai, seme-alaben interesentzat hala komeni denean.

3. Epaileak erabakiko du zein den jagoletza- mota komenigarriena seme-alaba adingabeen

intereserako, kontuan hartuz gurasoetako bakoitzak zer eskaera aurkeztu duen eta aintzat hartuz, foru lege honetan xedatutakoaz gainera, hurrengo faktoreak:

a) Seme-alaben adina.

f) Gurasoen arteko harremana, eta, batez ere, gurasoetako bakoitzak zer jarrera duen bere bete- beharrez arduratzeari dagokionez, bestearen eskubideak errespetatzeari dagokionez, eta, bereziki, elkarren artean lan egin eta seme-alabek guraso biekiko harremana eta beren familia zaba- lekiko harremana izateari ziurtatzeari dagokionez.

c) Seme-alaben gizarte- eta familia-loturak.

d) Seme-alaben iritzia, baldin eta behar beste- ko zentzutasuna badute, eta, betiere, hamabi urte baino gehiago badituzte, bereziki aintzat hartuta hamalau urtetik gorakoena.

e) Gurasoen gaitasuna eta borondatea seme- alaben egonkortasuna ziurtatzeko.

f) Gurasoen familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko aukera.

g) Gurasoen artean aldeaz aurretik egon litezke- en akordioak eta itunak, baldin eta horiek justifika- tu badizkiote.

h) Bizikidetasunari buruzko araubideari begira garrantzi berezia duen beste edozein inguruabar.

4. Nolanahi ere, erabakiaren helburua izan den da bateratzea, ahal bada, jokoan diren interes guz- tiak, kontuan hartuz lehentasuna dutela seme- alaba adingabeen edo ezgaituen interesek, eta ziurtatuz gurasoek berdintasuna izan den dutela seme-alabekiko beren harremanetan horien onu- ragarri den orotan.

5. Epaileak jagoletza partekatua erabakitzen badu, gurasoetako bakoitzaren eta seme-alaben arteko bizikidetasunari buruzko araubide bat eza- rriko da, familiaren egoerari egokitua, bi gurasoei ziurtatze aldera berdintasunez baliatu ahal izatea haien eskubideak eta betebeharrak.

6. Jagoletza banakakoa erabakitzen badu, epaileak beste gurasoarekiko komunikazio-, ego- naldi- edo bisita-araubide bat ezarriko du, hark ziurtatuta izan dezan Nafarroako Zuzenbide Zibila- ren Konpilazioko 63. legearen arabera esleituta dituen guraso-ahalaren berezko ahalmen eta bete- beharren erabilera.

7. Non eta berariaz justifikatutako inguruabarrak gertatzen ez diren, ez da neba-arrebak banatzea dakarren konponbiderik hartuko.

8. Ez zaio zaintza eta jagoletza gurasoetako bati emanen, ez partekatua ez banakakoa, hurrengo bi baldintza hauek batera ematen badira:

a) Beste gurasoaren edo seme-alabaren bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurka atentatzeagatik abiatutako prozesu penal batean sartuta badago.

b) Kriminalitate-zantzu arrazoizkoak eta funtsatuak daudela dioen ebazpen judizial arrazoitua eman bada.

Ez zaio zaintza eta jagoletza emanen, ezta ere, baldin eta epaileak ikusten badu, alderdien alegazioei eta egindako frogei erreparatuta, etxeko edo genero indarkeriaren zantzu funtsatuak eta arrazoizkoak daudela.

Bi kasu horietan hartzen diren neurriak berraztertutik ahalik dira, baldin eta zigor jurisdikzioan horri buruzko ebazpen irmoa ematen bada.

Ezkontide edo bikotekide baten aurkako salaketa ez da nahikoa izanen, berez, modu automatikoan ondorioztatzeko bestearenganako edo seme-alabenganako indarkeria edo mehatxuak daudela, edo horiei kalteak eragiten zaizkiela, eta ez da nahikoa izanen seme-alabaren zaintza eta jagoletza gurasoetako bati emateko.

6. artikulua. (KENDUTA).

7. artikulua. (KENDUTA).

8. artikulua. (KENDUTA).

9. artikulua. (KENDUTA).

10. artikulua. (KENDUTA).

Xedapen iragankorra. (KENDUTA).

Xedapen gehigarri bakarra. Zenbait pertsonari buruz ari denean foru lege honen gaztelaniazko bertsioak genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasu guztietan ("padres", "hijos", "abuelos", eta abar) ulertu behar da adierazpideen ekonomia hutsagatik jokatzeko delak horrela, eta horiek orokorrean hartzen dituela hizpide, haiek bai emakumezkoek bai gizonezkoek betetzen dituztela ere, erabateko berdintasun-baldintzetan, ondorio juridikoen ikuspegitik".

Bigarren xedapen gehigarria. (KENDUTA).

Hirugarren xedapen gehigarria. (KENDUTA).

Xedapen indargabetzailea. Indargabetuta gelditzen da Bikote Iraunkorren Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeko 10. artikulua.

Azken xedapenetan lehena. Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, eta Foru Zuzenbide Zibileko Kontseilu Aholku-emaileak alde aurretik txostena eginda, Nafarroako Parlamentuan foru lege proiektu bat aurkeztuko du Nafarroako Foru Berria aldatzeko, familia zuzenbideari dagokionez.

Azken xedapen berria. Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru dekretu bat onetsiko du arautuko dituen familia-bitartekotzako zerbitzuen antolamendua, funtzionamendua, eskumenak eta eskurantzak, familia-gatazkak konpontzea eta foru lege hau aplikatzea helburu.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hiru hilabeteko epean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nekazaritza Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa.

LANDA GARAPENERAKO ETA INGURUMENENKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak Nekazaritza Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2010eko urriaren 1eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

IRIZPENA

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak 2011ko martxoaren 3an eta 4an eginitako bileretan onetsia.

Foru Lege proposamena, Nekazaritza Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nekazaritza Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeko 68.3 artikuluan hartzaileek aurretiaz bete beharreko zenbait baldintza ezartzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berak edo bere sozietate publikoen bidez obrak egin ahal izateko. Baldintza horietako bat artikuluko 3. idatz-zatik a) letran ezarritakoa da: dagokien finantzaketa zatia eta hala bide denean egiten diren likidazioak aurrez aportatzea. Finantzaketa zati hori, hasiera batean, obra horien kostuaren 100eko 50ekoa da.

Onartu beharra dago bizi dugun zailtasun ekonomikoko une honek eragin berezia izan duela toki entitateen diru-sarreretan, nabarmen jaitsi baitira likidezia, finantzatzeko ahalmena eta, azken batean, gastua; horrenbestez, bereziki zail dute baldintza hori betetzea. Beraz, entitate horien ekarpena erraztea komeni da; hartara, finantzaketari kalte egin gabe, erraztu egiten da, entitate horien ekarpenak obrak egiteko prozesuaren erritmoari egokituta.

Artikulu bakarra. Nekazaritzako Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen aldaketa.

Testu hau izanen dute ondoren aipatzen diren Nekazaritzako Azpiegituri buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen agindu hauek:

Bat. 51.2 artikulua.

“Instalazio horietarako laguntza publikoak eskuratzeko, instalaziook oinarrizko ureztatze-azaleraren adinakoa edo handiagoak izan beharko dute. Irizpide hori ez da aplikatuko ureztaketarako ezarritako azalera oinarrizkoaren neurria lortzerik ez duten finketan, bai topografi edo isolamendu arazoengatik bai ageriko ezintasun teknikoengatik.”

Bi. 52.4 artikulua.

“Ureztatze-unitate berean ura lurzatian aplikatzeko sistema bakarra erabiltzen ahalko da. Aukeraturako sistema prestatuko da laboreetarako hobekien den moduan, arrazoi agronomikoak eta kostua kontuan harturik. Lurzatian ura aplikatzeko sistemak, bakoitzak bere aldetik, oinarrizko ureztatze-unitatearen tamaina baino handiagoa badute, aurreko irizpide orokorretik salbuetsita egonen dira. Foru lege honetan aurreikusitako dirulaguntzak aplikatuko zaizkie tamaina hori gainditzen duten ureztatze-sistemari edo ureztatze-sistemei.”

Hiru. 68.3.a) artikulua.

“3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berak edo bere sozietate publikoen bidez obrak egin ahal izateko, hainbat baldintza aurretiazko ezarriko dira, hartzaileek bete beharrekoak eta erregelamendu bidez garatzekoak, honako oinarri hauetan oin hartuta:

a) Dagokien finantzaketa zatia eta, kasu bada, egiten diren likidazioak aldeztu egitea.

Hala ere, foru lege honetako 71.2 artikuluko bigarren ataleko d) letran ageri diren barne banaketako obren kasuan, herrilurretan nahiz gisako lursailetan egiten direnetan, onuradunek obra horien esleipen-zenbatekoaren 100eko 50 jarri beharko dute obrak hasi aurretik, foru lege honetako 73.4 artikuluekin bat, edota, bestela, zenbateko bereko abal solidario bat, Espainian eragiketarako egiteko baimena duen banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba edo elkarrekiko bermerako sozie-

tate batek lehenbiziko errekerimendua egindakoa exekutatzeko modukoa. Abala aurkeztea hautatuz gero, onuradunek dagokien zenbatekoa ordaindu beharko dute obra-ziurtagiri bakoitzean, ziurtatutako epea amaitu eta hirurogei egun pasa aurretik”

Lau. 71.2 artikulua. f) letra berria gehituko zaio.

“f) Herrilurretan egindako lurralde-hobekuntzak: Nekazaritza-azpiegituren jarduketarekin batera, herrilurrak berrantolatze eta hobetzeko prozesuaren barruan egiten diren inbertsio oro, herrilurretako laborantza-loteak hobetzea helburu. Kontzeptu horren barruan sartuko dira laborantza-lote berrietan mugarriak jartzeko lanak, drainatze-obra eta laborantza-finken lurralde-hobekuntzatzat jotzen den beste edozein inbertsio. Edonola ere, obra horiek kontratatuta egon beharko dute ureztaketa abiatzeko deklarazioa egin eta hiru urteko epea amaitu aurretik”

Bost. 73.4 artikulua.

“Foru lege honetako 71.2 artikuluko bigarren ataleko d) letran aipatzen diren obrak finantzatzeko, herrilurretako barne banaketari buruzkoak, baldintza ezinbestekoa izanen da barne banaketa hori presiopeko sareen bidez egitea, eta hartara, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gehienez ehuneko 75 finantzatuko du, eta kasuko toki entitateak edo eite berekoak gainerakoa, gainerako hori kalkulaturik egoeraren arabera finkatzen ahal diren erreferentziako kostuen gainean. Horrez gain, toki entitateak hamabost urtez eutsi beharko dio bere hartan loteen tamainari; ez da zilegi izanen tamaina hori oinarritzko ureztatze-

azalera baino txikiagoa izatea, eta adjudikaziorako baldintzak foru lege honetako 42.5 artikuluan esaten denaren arabera izanen dira. Ehuneko 75eko gehieneko dirulaguntza hartzeko baldintzak erregelamendu bidez ezarriko dira.

100eko 50eko oinarritzko dirulaguntza Administrazioak jarriko du obren exekuzioa gauzatzen den bitartean. 100eko 25eko dirulaguntza osagarria lortzeko baldintzak erregelamenduz garatuko dira; oinarria izanen da saritzea herrilurren adjudikazio-hartzaile direnek Nafarroako Ustiatarien Erregistroaren arabera dituzten ezaugarriak, eta saritzea, halaber, zer prestakuntza duten ureztatzearekin zerikusia duten gaietan eta zer kontrol beren urkontsumoen gainean. Behin egiaztapena eginda, erregelamenduz ezarritako baldintzei jarraituz, 100eko 25 hori ordainduko da.”

Sei. 73. artikulua. 6. idatz-zatia gehituko zaio.

“6. Foru lege honetako 71.2 artikuluko bigarren ataleko f) letran aipatzen diren obrak toki entitateek sustatu eta eginen dituzte, eta Nafarroako Gobernuak, gehienez ere, 100eko 40ko dirulaguntza emanen die. Gehieneko dirulaguntza hori eskuratzeko baldintzak erregelamendu bidez garatuko dira”

Xedapen indargabetzailea. Foru lege honen aurka doazen lege- nahiz erregelamendu-xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

Azken xedapena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den unean bertan.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, politika ekonomikoari eta enpleguari buruzkoa.

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkar-teak aurkezturiko jabeldura, politika ekonomikoari eta enpleguari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteko parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren eta José Andrés Burguete Torrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako-aren babesean, politika ekonomikoari eta enpleguari buruzko ondoko jabeldura egiten diote Nafarroako Gobernuari.

Nafarroa 45.886 langabetu izatera iritsi da, azken hilean 716 pertsona gehiago batu zaizkielako langabezian daudenei. Halatan, Nafarroa, legegintzaldi honetan, 2007an 20.866 langabetu izate-tik gaur egun 45.886 langabetu izatera igaro da; alegia, % 125eko gehikuntza.

Halere, 2007aren amaiera aldean, Nafarroako Gobernua aitzindaria izan zen 2008-2011 epean egin beharreko inbertsioei buruzko berariazko plana taxutzean, dotazio eta azpiegitura publikoak garatzeko 4.508 milioi euroko inbertsio publikoare-kin. Nafarroa 2012 Planaren bidez zuzeneko 25.000 enplegu eta zeharkako 40.000 enplegu sortzea aurreikusten zen. Nafarroa 2012 Plana Foru Komunitatean inoiz egin den inbertsio-ahale-gin handiena balitz bezala aurkeztu zen, zeinaren

bidez erakutsi nahi baitziren Administrazioaren lidergoa krisi garai honetan eta haren gaitasuna konfiantza eta enplegua sortzeko.

Hiru urte igarota, plana bukatzeko bederatzi hilabete soilik falta direlarik, aurreikusitako 4.500 milioietatik 1.300 milioi inbertitu ditu Nafarroako Gobernuak, Nafarroa 2012 Planaren jarraipena egiteko azken txosten ofizialaren arabera. Argi dago ez dela bete inbertsio-ahalegin berebiziko hori, nahiz eta, Gobernuko lehendakariak planaren testuan adierazi zuenez, finantzaketa “erabat ziurtatuta” egon eta “baliabide ekonomiko publiko-ak sortzeko eta kudeatzeko ahalmen guztia mobi-lizatu; izan ere, osotara aktibatu da Foru Adminis-trazio Publikoaren ahalmena, handia baita, nabarmen azkartu dira administrazio-izapideak eta baliabide pertsonal eta tekniko guztiak jarri dira.”

2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, bestalde, inbertsio publikoaren % 30eko murrizke-ta finkatu da, eta horrekin batera, jakina, enplegua sortzen duten produkzio-inbertsioena. Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren hitzetan, ekonomia pribatuari dagokio errekupeazioaren buru jartzea.

2010eko martxoaren 31n, Nafarroako Gobernuak –UPNkoa baita– eta PSNk akordio bat sinatu zuten, krisiaren aurkako zenbait neurri hartze aldera, baina oraingo honetan ez dute akordio hori Nafarroako Parlamentura ekarri. Akordio horretan erronka handizat jotzen zen “krisi ekonomikoaren aurkako borroka eta enpleguaren sorrerarako etengabeko sustapena gure Foru Komunitatean”, konpromiso gisa hartzen zen “gastu publikoa opti-mizatze programari buruzko programa bat abian jartzea, lehentasuna emanez Administrazio Publikoan gastu arrunt ez-emankorra murrizteari” eta “neurri osagarriak jartzea baldin eta zerga bidezko diru-sarreraren bila-kaera uste baino hobea baldin bada”, eta aurrekon-tu-baliabideen betetze-maila handiena izan zedin hitzartu zen.

Bada, aplikatutako neurriek ez dute ekidin Nafarroan 2009an baino hiru merkataritza-sozietate gutxiago bakarrik desegitea 2010ean eta merkataritza-sozietate berrien % 2 soilik eratzea, etahorrek erakusten du Nafarroako Foru Komunitateko enpresa-ehuna zein ahul dagoen.

Enpleguari buruzko emaitza horiei eta Nafarroako enpresen eta sozietateen egoerari aurrekontu-kudeaketaren gaineko datua gehitu behar zaie, ez baitatoz bat Ekonomia Ministerioak darabiltzan datuak eta Nafarroako Gobernuak Ekonomia Departamentuak ematen dituenak.

Ekonomia Ministerioak, autonomia erkidegoen defizitari buruz emandako informazioan, % 0,85eko desbideratzea esleitzen dio Nafarroari –desbideratze esanguratsua dela dio–; hartara, igaro gara helburuetara doitu ahal izateko jarduketako irmoak beharko dituzten erkidegoetako bat izatera. Nafarroako Gobernuak, berriz, ontzat jo du 2010eko aurrekontu-ekitaldiaren itxiera, zeinak 111,4 milioi euroko saldo positiboa izan baitu. Adierazi beharra dago 2010ean zehar agortu egin zela zorpetze-ahalmena, eta 490 milioi euro inguruko zor publikoa jaulki zen. Kontua da Nafarroa, konparatiboki, Ekonomia Ministerioaren arabera, defizit publikoaren kudeaketan autonomia erkidegoetan azkenekoetako bat izatera igaro dela 2010ean.

Ondorioz, diagnosia zuzen egin zela ematen du, eta orobat ematen du asmatu egin zela sustapen eta lidergo publikoaren arloko neurriak hartzean, baina esan gabe doa oso urrun gaudela ezarritako helburuak betetzetik. Hortaz, emaitza da gizarte honek sekula ezagutu ez duen langabeziatasaren dugula eta kudeaketa ekonomikoak autonomia erkidegoetan azkenekoetako bat izatera eramanean gaituela defizit publikoaren arloan. Ahalegina historikotzat jo zen, baina zalantza dugu ea ahalegin hori egin ote den. Emaitza oso negatiboa da, eta CDNk oraindik ere uste du Nafarroa 2012 Plana bete izan balitz neurri handi batean arinduko zirela langabeziari buruzko datuak eta Nafarroako enpresek une honetan bizi duten egoera.

Egoera hain kezagarria dela ikusita, honako jabeldura hau egiten diogu Nafarroako Gobernuari, azal dezan zer balorazio egiten duen hartutako neurriei buruz, zer arrazoi egon diren helburuak ez betetzeko eta Nafarroako Gobernuak zer erabaki hartuko dituen langabeziaren igoera zuzentzeko eta Nafarroako Foru Komunitatea berriro ere egiaz izan dadin aitzindari krisi ekonomikoaren aurkako neurriei eta enplegua sortzeari dagokienez.

Iruñean, 2011ko martxoaren 3an

Foru parlamentariak: Juan Cruz Alli Aranguren eta José Andrés Burguete Torres

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Osasun-ikerketarako Institutua Fundazioko Patronatuko kideen izendapenari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Osasun-ikerketarako Institutua Fundazioko Patronatuko kideen izendapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzuteko honako gaurkotasun handiko galdera aurkeztu du, martxoaren

10erako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Osasun-ikerketarako Institutuaren Fundazioaren estatutuetan, honakoa ageri da, patronatuaren osaketari dagokionez:

“Beren xedeak hobeki betetzeko behar diren baliabideak, aholkularitza edo ezagutza eman duten edo eman dezaketen enpresa edo erakunde publiko zein pribatuak ordezkatzuz, patronatuak erabaki ahalko du lau kide bitarte izendatzea, (erakundeen kideak deitzen zaizkie), horietako bi Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko titularrak izendatuak eta beste biak Nafarroako Unibertsitateko errektoreak izendatuak”

• Ba al du Osasun Departamentuak asmorik Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Miguel Servet Institutua dagozkion bi kideen artean izendatzeko? Miguel Servet Institutua sartzeko asmorik baldin badu, ba al du Osasun Departamentuak Miguel Servet Fundazioa desagiteko asmorik?

Iruñean, 2011ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, AHTa Tuteran geratzeko proiektuko izapidetzearen egoerari buruzkoa.

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, AHTa Tuteran geratzeko proiektuko izapidetzearen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteari atxikitako José Andrés Burguete Torres foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz

erantzuteko honako gaurkotasun handiko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Berriki jakitera eman zaigu nolako kezka dagoen Nafarroako Erriberako enpresetan Tuterako geltokiaren egoera dela eta, departamentuak aurkeztutako eraginen azterlanean haren aipamenik ez baitago.

Bestalde, Sustapen Ministerioa ez da aurrera egiten ari Tuterako geltokiarekin lotutako proiektuetan; aitzitik, berriki horietakoren bat gerarazi egin da, eta horrek zalantza nabarmena eragiten du. Espero dezagun Nafarroako Gobernuko Herri Lan kontseilariak zalantza hori argitzea gaurkotasun handiko ahozko galdera honi erantzunez.

Zertan da AHTaren Tuterako geltokiaren proiektuaren izapidetzearen egoera?

Iruñean, 2011ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, itzaleko bidesaria zor publikotzat hartzearen irizpideari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, itzaleko bidesaria zor publikotzat hartzearen irizpideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendárizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran erantzuteko:

Onartzen al du Nafarroako Gobernuak itzaleko bidesaria zor publikotzat hartzearen irizpidea?

Iruñean, 2011ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Unión del Pueblo Navarro, Nafarroa Bai eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek eta Convergencia de Demócratas de Navarra eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteek Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamen bat aurkeztu dute. Hori horrela, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko seigarren xedapen gehigarriaren eta 147. artikuluan ezarritako arekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Legebiltzarreko Erregelamendua aldatzeko proposamena izapidetzeko onartzea eta Osoko Bilkurara igortzea, aintzat har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena

Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzea.

Legebiltzarreko Mahaiaren 2007ko urriaren 8ko Erabakiaren bitartez onetsitako Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginako artikulua, idatz-zati, xedapen eta idazpuru hauetan, ondotik adierazten diren aldaketak sartzen dira, adierazitako moduan:

15. artikulua.

Beste idatz-zati bat, 4.a, erantsiko zaio 15 artikuluari. Honela dio, hitzez hitz:

“4. Urtero, urtarrilean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira foru parlamentari guztiek aurreko urtean jasotako ordainsa-

riak, edozein dela ere aukeratu duten ordainsari-mota.

23. artikulua.

23. artikuluaaren amaieran honako testua gehitzea proposatzen da:

“Eta Nafarroako Gobernuak kideak lotzen dituzten printzipio etiko eta jokabidezko berei lotuta egonen dira.”

31. artikulua.

31. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“31.1 artikulua. Honakoak hartuko dira atxiki gabeko parlamentarizat:

a) Aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera, hauteskundeetara aurkeztu ziren hauteskunde-zerrendako alderdi politiko, hauteskunde elkargo edo koalizioari dagokion parlamentu-taldean sartzen ez diren foru parlamentariak.

b) Kide diren parlamentu-taldetik joaten diren edo hartatik kanporatuak diren foru parlamentariak. Bi inguruabar horiek Parlamentuko Mahaiari jakinarazi beharko zaizkio, ezagut ditzan eta behar diren eraginak izan ditzaten.

2. Atxiki gabeko parlamentariak legegintzaldi osoan eutsiko diote izaera horri, salbu eta hauteskundeetara aurkeztu ziren hautagai-zerrendako alderdi politikoari dagokion parlamentu-taldera berriz sartzen badira, betiere haren eledunak berriaz horretarako baimena eman ondoren.

3. Parlamentari ez atxikiaren izaerak berarekin ekarriko du parlamentu-organoetan jatorrizko parlamentu-taldeak proposatuta betetzen diren karguak eta postuak galtzea.

4. Atxiki gabeko parlamentariak izanen dituzte foru parlamentariak banaka erregelamendu bidez aitortutako eskubide berak. Mahaiari egokituko zaio, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, eskubide horietaz baliatzearekin zerikusia duten gai guztiak ebaztea.

5. Atxiki gabeko parlamentari bakoitzak eskubi-dea izanen du batzorde bateko kidea izateko. Batzorde hori zein den Parlamentuko Mahaiak zehaztuko du, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren.

6. Legebiltzarreko Mahaiak egokitzen jotzen dituen bitarteko materialak emanen dizkie atxiki gabeko parlamentariari, beren eginkizunak bete ditzaten, eta soilik 15. artikuluan aurreikusitako sari ekonomikoak egokituko zaizkie.”

32. artikulua.

32. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“32.1 artikulua. Foru parlamentari izaera Nafarroako Parlamentuaren eratze bilkuraren ondoren lortzen duten foru parlamentariak hauteskundeetara aurkeztu ziren hauteskunde-zerrendaren taldeari atxiki beharko zaizkio izaera lortu eta bost eguneko epean, Legebiltzarreko Mahaiari egindako idatzi baten bidez. Idatzi horretan jasota geratu beharko da taldeko eledunaren oniritzia. Hauteskunde-zerrenda horretako kideek ezin badute talde berekirik sortu, Askotariko taldean sartuko dira.

2. Dagokien taldean sartzen ez diren parlamentariak atxiki gabeko parlamentaritzat hartuko dira.”

33. artikulua.

33. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“33.1 artikulua. Askotarikoa ez beste parlamentu-talde bat osatu eta gero, talde hori bi kide baino gutxiagorekin gelditzen bada, taldea automatikoki deseginen da, eta haren kideak Askotariko taldeko kide izatera pasatuko dira automatikoki.

2. Taldea eratu eta gero kide bat aldi baterako galtzeagatik bi parlamentari baino gutxiagorekin gelditzen diren parlamentu-taldeek parlamentu-talde moduan iraunen dute, foru parlamentari berriak bere kargua hartu eta bost egun pasatu arte.

Bost egun pasatuta, foru parlamentaria talde izaten jarraitu duen parlamentu-taldean sartzen ez bada, taldea desegin egingen da eta haren kideak Askotariko taldea osatzera pasatuko dira automatikoki.”

34. artikulua.

34. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“1. Aurreko artikuluan aipatzen diren parlamentarietaz gainera, Askotariko taldea osatuko dute beren parlamentu-taldea eratzeko 29.1 artikuluan exijitutako gutxieneko parlamentari kopurura iristen ez diren alderdi politiko, hauteskunde elkargo edo koalizioetako foru parlamentariak.”

40. artikulua.

40. artikuluko 2. idatz-zatiari beste lerrokada bat gehitu zaio. Hauxe dio:

“Mahaikide batek proposatuta, Legebiltzarreko Mahaiak parlamentu-erabakietan sortutako zalantzazko gaiei buruzko aginduzko irizpideak finkatu ahalko ditu ondoren.”

44. artikulua.

44. artikuluan zortzigarren eginkizuna gehituko da, eta orain arteko zortzigarrena bederatzigarrena izatera pasako da. Hona testua:

“Zortzigarrena. Erregelamenduko 37.2 eta 129.2 artikuluetan aurreikusitako errekurtsioak ebaztea.

45. artikulua.

3. idatz-zatia gehituko zaio 45. artikuluari. Honela dio, hitzez hitz:

“3. Parlamentariak batzorde aretoan eserlekua hartuko dute, atxikita dauden parlamentu-taldeen arabera. Talde bakoitzarentzako gordetako tokia Mahaiak zehaztuko du, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, talde bakoitzak adierazitako lehentasunen arabera eta hauteskundeetan lortutako boto-kopuruaren hurrenkeran.

58. artikulua.

58. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“1. Batzorde arruntak dira Foru Araubidekoa, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordea eta Mahaiak legegintzaldi bakoitzaren hasieran zehazten dituenak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren; betiere, foru erkidegoko Administrazioaren departamentuen arabera izanen dira.”

IV. tituluko III. kapitulua

IV. tituluko III. kapituluan 4. atala sortzen da. Hona bere izena:

“Europako Gaietarako lan-taldea”

63 bis artikulua.

63. bis artikulua sortzen da, IV tituluko III. kapituluko 4. atalaren barruan, honako edukiarekin:

“63. bis artikulua.

1. Europako Gaietako Lan-taldea izanen da organo eskuduna Gorte Nagusiek igortzen dituzten Europar Batasuneko legegintzako egintza proiektuek subsidiarotasunaren printzipioa urratzen ote duten esateko. Lan-talde horrek, zenbat parlamentu-talde egon, hainbeste kide izanen ditu. Parlamentu-taldeek beren ordezkaria izendatuko dute batzordeetako kideak izendatzen dituztenaldi berean.

2. Subsidiarotasun printzipioa Europar Batasuneko legegintzako egintzetako proiektuetan betetzen den kontrolatzeko prozedurak honako arauak izanen ditu:

Lehena. 1. Europar Batasuneko legegintzako proposamen bat jaso ondoren, Parlamentuko lehendakariak aipatu lan-taldeko kideei igorriko die, posta elektronikoren bidez. Halaber, Nafarroako Gobernuari ere igorriko zaio, bide bera erabilita, Gobernuak, bi aste epean, proposamenari buruzko txostena eman dezan, eta, zehazki, legegintzako ekimena subsidiaritatearen printzipioarekin bat etortzeari buruz duen iritzia eman dezan. Txosten hori, jaso ondoren, lan-taldeko kideei igorriko zaie.

2. Halaber, Parlamentuko zerbitzu juridikoei igorriko zaie, txosten bat egin dezaten legegintzako egintza proiektuak Nafarroak arlo horretan dituen legegintzako eskumenetan duen eraginari buruz, subsidiaritatearen printzipioa betetzeari dagokionez. Txosten hori bi aste epean egingen da, eta legelari nagusiak lan-taldeko kideei igorriko die.

3. Parlamentuko lehendakariak zilegi izanen du aurreko idatz-zatietan aipaturiko epeak luzatzea, beharrezkotzat jotzen duenean.

Bigarrena. Kasuan kasuko txostenak jaso ondoren, Parlamentuko lehendakariak lan-taldearen bilkura deituko du, gutxienez ere 48 ordu lehenagotik, eta deialdian adieraziko da lan-taldearen lanak amaitzeko epemuga.

Hirugarrena. Ezarritako epearen barruan, lan-taldeak eskatu ahalko du arau-proiektuari dagokion alorrean adituak diren funtzionarioen eta pertsonen agerraldia. Lan-taldeak zehaztuko du bere lanen egutegia, halako moduz non egin dezakeen irizpena amaituta egonen baita deialdian ezarritako egunerako.

Laugarrena. Lan-taldeak uste badu aztertu duen proiektuak subsidiaritatearen printzipioa urratzen duela, arrazoituta irizpen bat egin eta Parlamentuko lehendakariari igorriko dio, horrek Gorte Nagusietara igor dezan. Aldiz, uste badu arau-proiektua aipatu printzipioarekin bat datorre-

la, iritzia horren berri emanen dio lehendakariari, horrek Gorte Nagusiei jakinaraz diezaien, lan-taldeak hala eskatzen badu espresuki.

Bosgarrena. Irizpen arrazoitua Gorteetara igortzeko epea lau aste epea izanen da gehienez, legegintzako egintza proiektua Nafarroako Parlamentuan jasotzen denetik hasita.

3. Lan-taldearen lanak ohiko bilkuraldietatik kanpo egin behar direnean, legebiltzarreko lehendakariaren esku geratuko da lan horiek egiteko beharrezkoak diren egunak gaitzeko ahalmena.

65. artikulua.

65. artikuluko 1. idatz-zatiari lerrokada bat gehitzen zaio, hauxe dioena:

“Taldea bakoitzarentzako gordetako eserlekuak Mahaiak zehaztuko ditu, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, talde bakoitzak adierazitako nahiaren arabera eta hauteskundeetan lortutako boto-kopuruaren hurrenkeran.”

70. artikulua.

70. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“3. Lehendakariak Parlamentuko legelarien, Comptos Ganberako legelarien edo Nafarroako Gobernuak aholkulari juridikoen artetik legelari bat proposatuko du legelari nagusi izateko, eta Mahaiak izendatuko du eta kenduko du kargutik.

71. artikulua.

71. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“1. Parlamentua urtean bi bilkuraldi arruntetan bilduko da: lehenengoa irailtik abendura, eta bigarrena urtarriletik ekainera.”

74. artikulua.

74. artikuluko 6. idatz-zatia kentzen da.

76. artikulua.

76. artikuluko 2. idatz-zatiko lehenengo esaldia aldatzea. Hona testu berria:

“Batzordeen bilkurak ez dira jendaurrekoak izango.”

82. artikulua.

82. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea. Hona testu berria:

“2. Lehendakaritzak errespetua, ordena eta adeitasun parlamentarioa gordetzen direla zainduko du uneoro.”

93. artikulua.

93. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“2. Foru parlamentarien botoa pertsonala eta delegaezina da, honako kasuetan izan ezik:

a) Amatasuna dela-eta Osoko Bilkuraren saioetara joaterik ez duen parlamentariak bere botoa beste parlamentari baten esku utzi ahalko du, erdiztearen ondorengo sei asteetan.

b) Behar bezala egiaztatutako ospitaleratze baten edo gaixotasun larri baten ondorioz Osoko Bilkuraren saioetara joaterik ez duten parlamentariak beren botoa beste parlamentari baten esku utzi ahalko dute.

Botoa delegatzeko eskaria Parlamentuko Mahaiari zuzendutako idazki batez eginen da. Idazki horretan, botoa delegatzen duen pertsonaren izena eta boto-delegazioa jasotzen duen pertsonaren izena agertuko dira, bai eta delegazio hori zein osoko bilkuratan erabili beharko den edo, kasua bada, delegazioak zenbat iraunen duen. Mahaiak, eskaerari buruz ebazterakoan, boto delegatua emateko prozedura ezarriko du.”

104. artikulua.

104. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzea. Hona testu berria:

“4. Ez da onartuko norik bere botoa azaltzea.”

106. artikulua.

106. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“2. Zenbaketa honetatik salbuetsiko dira uztaila eta abuztua, salbu eta gaia bilkura berezi baten gai zerrendan sartuta ez badago edo Erregelamendu honetako 14.3 artikuluan aurreikusitako epea baldin bada. Legebiltzarreko Mahaiak ezarriko du zer egun bihurtu baliodun, betiere aipatu bilkura berezia egin ahal izateko izapideak betetzeko, ez beste ezertarako.”

114. artikulua.

114. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea. Hona testu berria:

“1. Legebiltzarreko Mahaiak kasuan-kasuan hartu beharreko neurriak hartuko ditu hedabideei Parlamentuko organoen jarduerari, proposamenei eta ebazpenei buruzko informazioa emateko.”

156. artikulua.

156. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzea. Hona testu berria:

“4. Kontuen Auzitegiak Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. bis artikuluko 3. idatz-zatiak aipatzen duen irizpena Parlamentuari bidaliz gero, Mahaiak, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, behar diren neurriak hartuko ditu, kasua bada.”

157. artikulua.

– 157. artikuluko 2. idatz-zatiari lerrokada bat eranstea; honela dio, hitzez hitz:

“Halaber, gutxienez ere Legebiltzarreko kideen gehiengoa ordezkatzeko duten parlamentu-taldeek Osoko Bilkurako eztabaida hasi aurretik aurkezten dituzten “in voce” zuzenketak izapidetzera onartuko dira.”

– 157. artikuluko 3. idatz-zatiaren bukaeran esaldi bat sartzea, honakoa dioena:

“eztabaida horretan, lehenbizi, ekimena proposatu duenak hitz eginen du.”

VI. tituluko IV. kapitularen idazpurua

– VI. tituluko IV. kapituluko idazpurua aldatzea. Hona testu berria:

“Foru legearen indarra duten Gobernuaren xedapenak:

159. bis artikulua berria.

159. bis artikulua berria gehitzen da, VI. tituluko IV. kapituluan. Hona haren testua:

“159. bis artikulua.

1. Foru lege dekretu bat baliozkotzeari edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eginen dira edo, kasua bada, Batzorde Iraunkorrean, hura aldarrikatu eta 30 eguneko epearen barruan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 21.bis artikuluan ezarritakoari jarraituz. Nolanahi ere, foru lege dekretu bat gai zerrendan sartu ahalko da, eztabaida eta bozka dadin, hura Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman bezain laster.

2. Gobernuak kide batek Legebiltzarrean azalduko ditu hura aldarrikatzeko izan dituen arrazoiak, eta ondorengo eztabaida osoko eztabaidetarako ezarritakoaren arabera eginen da.

3. Eztabaida amaituta, bozketa eginen da, eta hartan ulertuko da baiezko botoak baliozkotzearen aldekoak direla, eta ezezko botoak, berriz, indargabetzearen aldekoak.

4. Foru dekretu lege bat baliozkotu ondoren, lehendakariak galdetuko du ea parlamentu-talderen batek nahi ote duen foru lege proiektu baten

gisara izapide dadila. Baiezkoan, Legebiltzarrak eskaera horri buruz erabakiko du. Alde bozkatzan baldin badu, foru lege proiektu baten gisara izapidetuko da presako prozeduraz, eta ez dira onartuko proiektua itzultzea eskatzen duten osoko zuzenketak.

5. Batzorde Iraunkorrak presako prozeduraren araberako foru lege proiektuen gisara izapidetu ahalko ditu kasua bada, Gobernuak legegintzaldien artean ematen dituen foru lege dekretuak.

6. Foru lege dekretu bat baliozkotzeko edo indargabetzeko erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.”

163. artikulua.

163. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“1. Foru Diputazioak, foru lege bat aldatzea edo indargabetzea ekartzen duten edo betearazpenerako legegintzako neurriak eskatzen dituzten hitzarmenak Estatuarekin formalizatzeko, aurretik Parlamentuaren baimena lortu beharko du.”

165. artikulua.

165. artikuluko 1. idatz-zatiaren amaieran esaldi hau gehitzea, amaierako puntuaren ordean koma bat ipiniz:

“ baldin eta horrek foru legeren bat aldatu edo indargabetzea edota betearazpenerako legegintzako neurriak hartu behar izatea badakar.”

171. artikulua.

171. artikuluko lehenengo hitzak aldatzea. Honela agertuko da idatzita:

“Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria.”

172. artikulua.

172. artikuluko azken hitzak aldatzea. Hauxe izanen da testua:

“ Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari-tzarako hautagai bat proposatuko du.”

173. artikulua.

– 173. artikuluko zazpigarren araua aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Zazpigarrena. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin eta gero hiru hilabete iragan eta hautagairik aurkezten ez bada edo aurkeztu direnetarik inor hautatu ez bada, Parlamentua deseginen da eta beste hauteskunde batzuk deituko dira. Hauteskunde dei horretatik sortzen den Parlamentu berriak lau urteko legealdi osoa irauten du.”

– 173. artikuluko zortzigarren arauo azken hitzak aldatzea. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“ hautagaia Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari izendatua izan dadin.”

183. artikulua.

183. artikuluko 3. idatz-zatiko lehen hitzak aldatzea. Hona testu berria:

“3. Bigarren bilkuraldia bukatzen denean.”

184. artikulua.

184. artikuluko 3. idatz-zatiko azken-aurreko esaldia aldatzea. Hona testu berria:

“ Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren.”

190. artikulua.

190. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzea. Hona testu berria:

“7. Bigarren bilkuraldiaren amaieran erantzuteke dauden galderak idatziz erantzunen dira hurrengo bilkuraldia hasi baino lehenago, non eta galdera aurkeztu duen foru parlamentariak ez duen adierazten galderari hurrengo bilkuraldi horretarako eutsi nahi diola, amaitu den bilkuraldiaren amaieraren ondoko bost egunetan.”

191. artikulua.

– 191. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu eta testu hau ipintzea:

“2. Aurreko artikuluko 4. idatz-zatian ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.”

– 191. artikuluko 4. idatz-zatiko lehen hitzak aldatzea. Hona testu berria:

“4. Bigarren bilkuraldia bukatzen denean.”

194. artikulua.

194. artikulua kentzea.

195. artikulua.

195. artikuluari 2. idatz-zatia gehitzea. Egungo testua 1. idatz-zatia izatera pasako da. Hona testua:

“2. Parlamentu-taldeek eskubidea izanen dute gutxienez ere beren mozioetako bat osoko bilkuretako gai zerrendan sar dadin. Halaber, adierazi ahalko dute beren mozioetatik zein sartu nahi duten bilkura horretako gai zerrendan, Osoko Bilkura egin baino hamar egun lehenago Mahaiari jakinarazten badiote.”

200. artikulua.

– 200. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letra aldatzea. Hona testu berria:

“c) Aurreko letrako mintzaldiek ez dute hogeita hamar minutu baino gehiago iraunen.”

– 200. artikuluko 2. idatz-zatiko f) letra aldatzea. Hona testu berria:

“f) Eztabaida bukatzen denean, epe bat irekiko da, zeinaren iraupena Legebiltzarreko lehendakariak erabakiko baitu, eta epe horretan parlamentutaldeen eta Parlamentuko Askotariko taldeko foru parlamentariak bost erabaki proposamen aurkeztu ahalko dizkiote Mahaiari, gehienez ere. Mahaiak eztabaidagaiarekin kongruente diren proposamenak onartuko ditu. Haien eztabaida eta bozketa Erregelamenduko 197. artikuluko xedatutakoari jarraituz egingen dira.”

202. artikulua.

– 202. artikuluko 5. idatz-zatiko lehenengo lerrokada aldatzea. Hona testu berria:

“5. Nafarroako Gobernuak eskatuta deitzen diren informazio bilkurak Foru Diputatuaren azalpenarekin hasiko dira; azalpen horren gehieneko iraupena hogeita hamar minutukoa izanen da. Azalpena bukatu ondoren, lehendakariak aldi baterako eten ahalko du bilkura, batzordeko kideek informazioa aztertzeke beta izan dezaten. Bilkura berriro hasten denean, parlamentutaldea bakoitzeko ordezkariak eta Askotariko taldeko parlamentariak hamar minutuz mintzatu ahalko dira, beren jarrerak argitzeko, zerbait galdetzeko edo oharren bat egiteko. Foru diputatuak edo laguntzen dioten aholkulari edo funtzionarioek horiei erantzunen diete.”

– 202. artikuluko 6. idatz-zatiko lehenengo lerrokada aldatzea. Hona testu berria:

“6. Eledunen Batzarrak eskatuta deitzen diren informazio bilkurak proposamena egin duen parlamentutaldeko ordezkariaren azalpenarekin hasiko dira. Azalpena bukatu ondoren, lehendakariak aldi baterako eten ahalko du bilkura, batzordeko kideek eta foru diputatuak azalpena aztertzeke beta izan dezaten. Bilkura berriz hasten denean, foru diputatua mintzatu da, eskatutako gaiari buruzko azalpenak emateko, gehienez ere hogeita hamar minutuz. Azalpena bukatu ondoren, lehendakariak aldi baterako eten ahalko du bilkura, batzordeko kideek azalpena aztertzeke beta izan dezaten.”

– Beste idatz-zati bat erantsiko zaio 202. artikuluari; honela dio, hitzez hitz:

“7. Aurreko bi idatz-zatietan diputatuentzat ezarritako denbora-mugak ez zaizkio aplikatuko Nafarroako Gobernuko lehendakariari.”

212. artikulua.

212. artikuluko 3. idatz-zatiko azken esaldia aldatzea. Hona testu berria:

“Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

1. Erregelamenduaren aldaketa hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, eta aldaketa onetsi ondoko legegintzaldian Nafarroako Parlamentua eratzeko bilkura egiten den egun berean hartuko du indarra.

2. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari aldaketa honek indarra hartu eta lau hilabeteko epean Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateratua egiteko, zein-an jasoko baitira onetsitako aldaketak.